

2015 UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Enpresaren ekonomia

- **BATXILERGOA**
- **LANDIBE HEZIKETA**
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu. Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

A AUKERA

A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderei:

Euskaltel telekomunikazio-enpresa **burtsara** irtetea aztertzen ari da, **telekomunikazioen sektorean** hazten jarraitu eta enpresak Euskadin dituen "etorkizuna eta errotzea sendotzeko".

Ohar baten bidez jakitera eman duenez, lau helburu nagusi ditu Euskaltelek aurrera begira: telekomunikazioen sektorean duen lidergoa sendotu nahi du; hazkundera eta etorkizuneko garapena erraztu nahi ditu; merkatuetan sona irabazi asmo du; eta, azkenik, **finantzaketa** eskuragarriago nahi du.

Azken urteotan, sektorean gailentzen ari diren **bat-egite** eta salerosketak ikusita, zalantzan jarri izan da Euskaltelen etorkizuna, duen tamaina txikiagatik. Sektorearen diru-sarrerak % 35 jaitsi dira 2007tik, eta, horren eraginez, Hego Euskal Herriko merkatuak **oligopolio**-itxura hartu du. Iaz Alberto Garcia Erauzkin presidentea gai horri buruz egindako adierazpenetan, Euskaltel proiektu berri guztiei adi zegoela esan zuen, bai eta, behar izanez gero, finantzaketa modu berriei ere. Gaineratu zuen konpainiak baduela gutxieneko tamaina, gai dela bakarrik jarraitzeko eta ez dagoela obsesionatua tamaina handitzearekin.

Euskal enpresak dagoeneko hasi ditu saltzeko eskaintza publikoa (SEP) egiteko izapideak. Bestalde, enpresak ziurtatu duenez, **akziodunek** (International Cable, Kutxabank eta Iberdrola) berretsi egin dute Euskaltel Euskadin errotzeko 2012an hartutako konpromisoa.

Galdekizunak:

- Azaldu eta iruzkindu testuan azpimarratuta agertzen diren hitzen esanahia.
- Azaldu, enpresa batek jaulki ditzakeen tituluen artean, zer diren obligazioak eta zer akzioak, eta aztertu zein diren haien arteko antzekotasun eta ezberdintasun nagusiak.

A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

GRAPEO enpresak grapak fabrikatzen ditu. Iaz, 10.000 euroko burdin hariak erosi eta kontsumitu zuen. Biltegian batez beste duen burdin hariaren balioa 2.150 euro izaten da. Grapa-salmenta, merkatuko prezioan, 14.000 euro izan zen, eta bezeroek enpresarekin duten zorraren batez bestekoa 1.900 euro da. Urteko produkzioa, ekoizpen-kostuan, 6.000 euro izan zen.

Biltegiko grapa-izakinen batez besteko balioa 400 euro da, eta ekoizten ari diren grapen batez besteko balioa 600 € da. Enpresak urtean produzitutako guztia saltzen du. Hornitzaileei 30 egunera ordaintzen die.



Kalkula itzazu hauek:

- Batez besteko heltze-aro ekonomikoa. Azaldu emaitza.
- Batez besteko heltze-aro finantzarioa. Azaldu emaitza.

A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

TORREA enpresak osagai baten 3.000 unitate kontsumitzen ditu hilero. Ezarritako segurtasun-stocka 300 unitate da, hornitze-epea 5 egunekoa da eta eskaera bakoitza 15 eguneko kontsumoaren baliokidea da.

Aurreko horiek kontuan izanik, kalkula itzazu hauek:

- Eskaera-puntua.
- Biltegiratutako stockaren batez besteko maila.
- Urteko errotazio-indizea.
- Bigarren eskaera 2 egun atzeratuta iristen bada, zer gertatuko da? Zergatik?
- Egin ezazu d) galderaren adierazpen grafikoa.

A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu

GEMAR enpresak 27 langile zituen iaz; haietako bakoitzak 230 egunez lan egin zuen, egunean 8 orduz lan eginez, eta enpresak 500.000 unitate ekoitzi zituen. Aurten, 34 langileko izan ditu, 232 egunez lan egin dute 8 orduz egunean, eta enpresak 520.000 unitate ekoitzi ditu.

Kalkula itzazu hauek:

- Urte bakoitzean lorturiko produktibitatea. Azaldu lortutako datuen esanahia.
- Produktibitatearen igoera edo jaitsiera, portzentaje gisa, eta komentatu enpresaren produktibitatearen bilakaera.
- Aurten, sektoreko enpresen produktibitatea 7,70 unitate/lanordu izan da. Konparatu GEMAR enpresaren produktibitatea sektorekoarekin.

A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu

BULAR enpresak produktu bat merkaturatzen du, unitateko 2 €-an erosten duena. 50.000 unitateko lote bat erosteak gastu hauek ditu: garraioa, 950 €; aseguruua, 150 €; eta ontziak eta bilgarriak, 750 €. Erosketa-gastu guztiei % 21eko BEZa (jasandakoa) gehitzen zaie.

Kalkula itzazu hauek:

- Produktuaren erosketa-prezioa.
- Fakturaren prezioa.
- Zer motatako zerga da BEZa (balio erantsiaren gaineko zerga): zuzenekoa ala zeharkakoa? Zergatik?



B AUKERA

B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

IZARRA enpresak bere instalazioak berriztatu nahi ditu, eta, horretarako, bi inbertsio-egitasmoren artean aukeratu behar du.

- A egitasmoa: Hasierako inbertsioa 21.600 € da, eta osorik ordaindu behar da hasieran. Egitasmoak lau urteko iraupena du, eta urtero 14.700 €-ko diru-sarrerak eta 9.000 €-ko ordainketak izatea aurreikusten da. Horretaz gain, 6.200 €-ko hondar-balio bat lortzea espero da.
- B egitasmoak hasieran 25.500 € ordaintzea eskatzen du, eta aurreikusten diren kutzako fluxuak taula honetan jasotzen diren datuen arabera dira:

	1. urtea	2. urtea	3. urtea
Kostu finkoak	14.150 €	14.150 €	14.150 €
Unitateko kostu aldakorrak	23 €	23 €	23 €
Unitateko salmenta-prezioak	48 €	48 €	48 €
Ekoiztiko/saldutako unitateak	1.500	1.000	800

Kontuan hartuta inflazio-tasa % 3 izango dela urtez urte eta lortu nahi den errentagarritasun minimoa % 6 dela:

Kalkula itzazu hauek:

1. Zein inbertsio aukeratu beharko luke enpresak bakoitzaren balio eguneratu garbiaren (BEG) irizpidearen arabera? Arrazoitu erantzuna.
2. Eta inbertsio bakoitzaren berreskuratze-epearen (Pay Back) irizpidea erabiliz, zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.
3. Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?

B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

TXABE enpresak emaitza ekonomiko hauek lortu zituen iaz:

Urteko salmentak 20.000 unitate izan ziren, eta, dirutan, 50.000.000 € Ekoizpen-kostuak, guztira, 25.500.000 € izan ziren; haietatik, 18.000.000 € kostu aldakorrak izan ziren.

Datu horiekin, kalkula itzazu hauek:

- a) Enpresaren itopuntua edo errentagarritasun-atalasea.
- b) Adierazi grafikoki egoera, eta azaldu esanahia.
- c) Aurten 60.000.000 €-ko salmentak aurreikusten badira eta salmenta-prezioa konstante mantentzen bada, zein izango da aurtengo emaitza ekonomikoa?
- d) Enpresak, iaz, 120 langile zituen, eta langile bakoitzak 1.500 orduz lan



egin zuen urtean. Zein izan zen, orduan, lanorduko produktibitatea?

B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu.

ITA Gailuak enpresak goi-segurtasuneko sarrailetarako altzairu bereziko doitasun-mekanismoak ekoitzi eta saltzen ditu. Joan den urteko abenduaren 31n, haren ondarea honela zegoen banatuta, eurotan:

1.- Erreserbak.....	125.000,-
2.- 4 urteko mailegua.....	25.000,-
3.- Altzairu berezia.....	25.000,-
4.- Doitasuneko gailuaren patentea.....	15.000,-
5.- Salmentak garraiatzeko kamioiak.....	115.000,-
6.- Ordaindu beharreko efektu sinatuak	3.000,-
7.- Lantegia eta zenbait tailer	650.000,-
8.- KARPISKY antivirus informatikoa	5.000,-
9.- Kobratzeko zenbait faktura.....	12.000,-
10.- Bankuko kontu-korrontean	80.000,-
11.- Foru Aldundiak emandako diru-laguntza.....	25.000,-
12.- Kapitala	??
13.- Salgai dauden mekanismoak	650.000,-
14.- Ordaintzeko zenbait faktura (altzairu-erosketa dela eta)	5.000,-
15.- BEZagatik Ogasun Publikoari zor diona.....	12.000,-
16.- Enpresan dauden altzariak.....	65.000,-
17.- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua.....	25.000,-
18.- Ibilgetu immaterialaren amortizazio metatua.....	1.000,-
19.- Mekanismoak fabrikatzeko makineria.....	95.000,-
20.- Enpresaren sistema informatikoa	20.000,-
21.- Gizarte Segurantzari zor diona.....	3.000,-
22.- Kutxa gotorrean dagoen dirua	20.000,-
23.- Mekanismo-salmentagatik kobratu beharreko efektuak	7.000,-
24.- Lantegiaren orubea	200.000,-

Hau eskatzen da:

- Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Bermea.
 - Zorpetze osoa.
 - Likidezia.
 - Altxortegia.
 - Ibilgetua.
 - Finantza-autonomia.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2015eko UZTAILA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2015

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

B4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu.

Zentral sindikalek salatu dute azkenealdian Fogasa atzeratzen ari dela langileei egin beharreko ordainketetan (haien enpresek ordaindu ezin dituzten **soldata** atzeratuei edo **kaleratzearen kalte-ordainei** dagozkienak).

Nahiz eta Administrazioak ofizialki ez duen eman ordainketen atzerapenei buruzko azalpen bat, **sindikatuetak**o buruzagiak ziur daude zein den arazoa: berme-erakundeak ez du behar adina diru.

Lan Ministerioak enpresa publiko bat **azpikontratatzea** erabaki du espedienteen parte bat kudeatzeko, Fogasa espedienteen kudeaketan atzeratuta dagoelako.

- Defini edo azaldu ezazu azpimarratuta dauden hitzen esanahia.

2015



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

ENPRESAREN EKONOMIA

Ikasleari ariketa bakoitzean bi aukera ematen zaizkio, A eta B. Bi aukerek 4 edo 5 galdera dituzte. Galderak balioesteko, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 3ko 23/2009 DEKRETUAN ekonomia- eta enpresa-gaiekin lotuta eta eskumen gisa azaltzen diren helburuak betetzen diren ala ez ebaluatuko dute zuzentzaileek.

A AUKERA

Bi aukeretan lehenak ekonomiako dibulgazio-testu bat du, komunikabide sozialetatik jasotakoa, eta edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea eskatzen da. Galderetan, termino batzuen esanahia aurkeztutako testuaren testuinguruan azaltzea eskatzen da, edo, bestela, testuari lotutako argudio ekonomikoren bat azaltzea. Galdera honek 2 puntu edo **2,5 puntu** balio du, gehienez, goiburuan adierazitakoaren arabera. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Lehen aukerak beste hiru galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera. Teknika egokiak menderatzea nahiz lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko da.

Azkenik, lehen aukeran baliteke galdera bat egotea ekonomia-terminoen ezagutza eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzeko. Galdera horrek **1,5 puntu** balio du, gehienez. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

B AUKERA

Bigarren aukerak balantze-analisi bat du. Galdera honek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea, eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desorekak eta desdoitzeak gertatuko balira hautemateko gai izatea. Batez ere, ikaslea emaitzen esanahi ekonomikoa ulertzeko eta interpretatzeko gai izatea balioetsiko da. Akats aritmetikoen kasuan, lehentasuna eman behar zaio ikaslearen arrazoibidearen ebaluazioari, eta ez zenbakizko emaitzaren zuzentasunari.

Bigarren aukerak beste bi galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarritzko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera.

Azkenik, bigarren aukerako galdera batean, ekonomia-terminoak ezagutzea eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Galdera horrek gehienez **1,5 puntuko** balorazioa du. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: gai honetarako ezarritako gaitasunak ikasleak eskuratuak izatea, enpresaren ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratze-maila adierazi behar du kalifikazioak.

Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie haiei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea, erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea —eskemak, marrazkiak, grafikoak, eta abar—, eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango du ikasleak. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehienezko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoaren analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jarduera ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoaren arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.